

Hamabi ikasle kolonbiar heldu berriak dira Enpresagintzako Fakultatera

2010/09/21

Hamabi ikasle kolonbiar heldu dira fakultatera, Panamericana unibertsitatetik. Dagoeneko hasi dira pixka bat fakultatea eta Oñati ezagutzen.

Beraien ikasketak burutzeaz gain , hemengo enpresak eta esperientziak ezagutzea dute helburu, horregatik hurbildu dira Enpresagintzara.

Gure ikasle berrien argazki gehiago ikusteko:

<http://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157624954023696/>

Lehen egun hauetan harrera plan bat izan dute. Fakultate berria ezagutu, ikasketen aurkezpen orokorra eta tutoreen aurkezpena. Talde dinamika batzuk beraien artean ezagutzen joateko eta batez ere beste ikasleak ezagutzen joateko.

Honetaz gain kultur taldea eta Osasun eta Kirol Zerbitzua aurkeztu zaie. Informatika eta liburutegi zerbitzua ezagutzeko astia ere izan dute.

ONGI ETORRI!

